

# **LANBIDEA SUSPERTZEKO ESTRATEGIA. XXI. MENDERAKO ARTXIBO, LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO-ZENTROAK**

Belén Castelló Zamora  
Anabella Domínguez D.  
Charo Valverde Tejedor

## **1. HITZAURREA**

Gure lanbidea zein egoeratan den ulertzeko, izan duen bilakaerari buruzko gogoeta egin behar da ezinbestean.

Hainbat alderdi sozial eta ekonomikorik, eta beste zenbait aldaketa teknologikorik, gaitasun eta profesional-profil berriak dituzte eskakizun. Zerbitzu hauek erabiltzen dituzten pertsonak ere bilakaera izan dute, ezagutza berrien jabe dira eta eskaera berriak proposatzen dizkiete informazio-zentro modernoei.

Dena den, lanbide hau une erabakigarrian da, bai informazio-teknologia berrien eraginaren eta gehikuntzaren ondorioz, eta bai beste lanbideetara irekirik dagoelako ere, eta honek aberastu zein baliogabetu egin gaitzake berdin-berdin. Heldu da informazioaren eremuko nagusitasuna gure gain hartzeko garaia. Bazterrean utziko baikaituzte, bestela, beste kolektiboek.

Dokumentu honek artxibo, liburutegi eta dokumentazio-zentroetako profesional-talde batek eginiko gogoetaren isla izan nahi du. Profesional-talde honek, izan ere, planteamendu berria egiteko premia sentitu du, ahal bezain azkar, bere zereginaren zein XXI. mendeko gizarterako dituen etorkizuneko asmoen inguruan.

Lanbideak merezi duen aitortzea aldarrikatzeko eta gure lan-baldintzak zein gizarteak gurekiko duen begiramena hobetzeko desira hartu ditugu oinarri, eta ahalegina egiten ari gara dokumentu hau baliabide estrategikoa izan dadin gaur egungo egoera agertzeko ez ezik gure helburuak, jarduera-ildoak eta helburu horiek lortzeko egokitzat jotzen ditugun ekintzak identifikatzeko ere.

Dokumentu hau taldeko gogoeta eta eztabaida eragiteko baliagarri izatea gustatuko litzaiguke, era berean.

## 2. BALIO ADIERAZPENA. INDARGUNEAK ETA AHULGUNEAK

Gure lanbideari argi egiten dioten balioak ondoko dokumentuetan deskribatu izan dira luze eta zabal: UNESCOren liburutegi publikoen aldeko adierazpenean<sup>(1)</sup> zein liburutegi eskolarrari buruzko UNESCO/IFLaren adierazpenean<sup>(2)</sup>, baita beste egile edota erakunde batzuek eginiko hainbat ekarpenetan ere.

**Gizartearen zerbitzura egiten dugu lan**, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatuz, eta baliabideak eta informazioa eskainiz hezkuntzarako, prestakuntza iraunkorrerako, ezagutza helarazteko eta kudeatzeko, zein azterketa, ikerketa eta hezteko aisiarako, betiere, gure kideekiko berdintasunaren eta errespetuaren balio demokratikoak oinarri harturik. Ezin ahaztu dezakegu garapen eragingarriak informazio egokia duela oinarri erakunde eta enpresa guztien lanean. Gure zereginak aukera-areagotzea islatzen du, edozein erakunde motatan eragingarritasun handiagoa sortzeari dagokionez.

### 2.1. Gure indarguneak balio-adierazpenetik beretik sorturikoak dira

- **Zerbitzuaren bokazioa** lanbideari atxikiriko balio gisa ⇒ “gure unibertsoaren” gunetzat ditugu erabiltzailea/ bezeroa/ hiritarra/erakundea.
- **Informazioaren eta ezagutzaren gizartearen** zerbitzura egiten dugu lan ⇒ gu gara, hain zuzen ere, informazioa eta edukiak erabiltzen eta kudeatzen ditugun profesional adituak.
- Lanbideak, araututa eta normalizatuta egonik ere, **“sorkuntzarako”** eta “ukitu pertsonaletarako” tarte handia eskaintzen digu, eta probetxuz balia dezakegu hori.

Honek, etorkizunari heltzeko toki ezin hobean kokatzen gaitu. Egungo egoera, ordea, gure helburutik oso urrun dago. Gizartean erabat finkatzera iritsi ez den kolektiboa gara oraindik, eta urria da lanbide honek gure gizarte-ingurunean duen garrantzi espezifikoa. Agerpen-gabezia hau kanpo-alderdiek lagundu... dute zalantzarik gabe, baina geure ahulguneak berak ere egon daitezke gabezia horren jatorrian.

## 2.2. Gure ahulguneak

- Horietako batzuk informazioaren izaerak berak sorturikoak dira:
  - Informazioa ere komunikazioaren alderdi konplexuek osaturiko prozesua da, hautemangarritasun gutxikoa, eta kuantifikatzen zaila da bere balioa. Gauza bera gertatzen da nork informazioari ateratzen dion etekinarekin zein informazioak sortzen duen ezagutzarekin ere.
  - Informazioaren onura informazio hori jasotzen duen kolektiboarengana itzultzen da, eta ez informazioa eskaintzen duenarengana. Hori dela eta, bazterrean gelditzen da, ahazturik gelditzen ez denean, informazioaren profesional-taldea.
- Beste batzuk kolektiboaren ezaugarri eta jokabideei loturikoak dira:
  - Nagikeria eta alferkeria, gure lanbideak bizitzen dituen aldaketa oso bizkorren aurrean. Profesional batzuk mesfidati agertu ohi dira aldaketen, prestakuntzaren eta ahaleginaren aurrean. Kasu askotan, profesionalik gehienak humanitateetatik etorritakoak izaten direnez, teknikoa den ororekiko ezjakintasun eta beldur sakona izan ohi dute. Informatika ulergaitza da askorentzat, eta gure kasuan, lanbide honek teknologia berrien eragin handia izaten duenez, askotan gertatzen da berriak eta ulertzen batere errazak ez diren ezagutzei heltzeko beldurra sortzea profesional hauengan. Hori dela eta, oso garrantzitsua da profesional-talde honek talde hauei eskain diezaiekeen babesa, adorea eta kemena.
  - Lanbide-heziketa desberdina, profesional jatorri heterogeneoa, dokumentazioan zein bestelako diziplinetan lizentziatutakoak (humanitateetan nagusiki), bibliotekonomian zein maisutzan diplomatuak, batxilergoak eta abar.
  - Pasibotasuna erabiltzailearen beharren aurrean: pertsonak egiaz nahi duen hori zer den ez "entzutea", ez ondorioztatzea, pertsonarekiko jarrera larderiatazailerak hartzera ere iritsiz, gure ezagutza teknikoetan babestuz.
  - Sektore batzuen handinahirik eza eta konformismoa, guri egokituko litzaizkigukeen zereginak bere gain hartzen ari diren bestelako profesionalen aurrean.
  - Nolabaiteko biktima-jarrera pasiboa, mendeko gaituen erakundearen/instituzioaren aurrean.

- Lanbidearen feminizazioa; aipaturiko handinahi eza eta konformismoa laguntzeaz gain autoestimu txikiagoa eta lanaren beraren balorazio txikiagoa eragiten dituena, bestelako lanbide teknikoen aurrean. Gainera, gehiegizkoa eta oker ulerturikoa den zerbitzuaren izpiritua, hau da, gure kulturak emakumeei egotziriko ohiko rolei oso loturikoa. Rol hauek, zoritxarrez, emakume gutako askok barneraturik ditugunak dira.
- Profesionalen laneko ezegonkortasuna edota kolokatasuna, bai zerbitzu-enpresetan lan egiten dutenena, bai administrazioentzako lan egiten dutenena ere. Egoera hau zuzenki proportzionala izan ohi da nor bere burua baloratzeko moduarekin, eta buru-energia kopuru handia ahitu ohi dute egoera hori bizitzen dutenek. Behin-behinekotasuna ere ez da batere lagungarri epe luzearako estrategiak planifikatzeko eta diseinatzeko.
- Korporatibismo urria. Beharbada, langileen lanbide-heziketa, estatusa eta ordainsariak ezberdinak direlako, edota agian, bakarka lan egiten dutelako, sarri, beste langile gaiturik izaten ez den lanpostuetan. Kolektibo-kontzientzia eskasa da. Horrenbestez, baterako edozein ekintzak zailtasun ugari izan ohi du oztopo.

### **2.3. Mehatxuak**

- Gure garapena baldintzatzen ari diren kanpo-mehatxuak aipatu behar ditugu:
  - Baliabide-hornidura eskasaren eraginez, profesionalek hainbat zeregin bete behar izaten dute egunero. Zeregin-barreiatze honen eraginez, ordea, arreta galtzen dute funtsezko helburuek. Sarritan gertatu ohi da zeregin hauetan jarduteagatik lan-karga gehiegi zamatzea.
  - Erabakitze gaitasuna duten pertsonen eta erakundeek zein gizarteak, oro har, ezjakintasun erabatekoa izatea gure lanaren, zereginen eta hauek esparru ezberdinetan eragiten dituzten ondorioen inguruan. Eskatzen den titulazioa baxua izaten da (hortaz, baita ordainsaria ere), gehienak lizentziatuak direla jakin arren.

## 2.4. Aukerak

- Gutxi izango dira teknologia berrien eragina guk adina nabaritzen dutenak, eta horrek aukera ugari eskaintzen digu ezagutzaren gizartearen garapenerako lehen mailako aktore gisa.
  - Berrikuntza-uneak bizi ditugu: lanbide berriak, behar berriak, mugak ezabatzea, erabiltzaile berriak, sorkuntzarako aukera ugari... eta "oso geurea" dugun hitz bat, etengabe esaten dena: **INFORMAZIOA.**

## 3. LANBIDEAREN ZEREGINA ETORKIZUNEAN

Zeregin hau ulertzeko, beronen jarduna zehazten duten **hiru alderdi** bateratu behar dira: profesionala, erabiltzaileak eta erakundea.

Hiru alderdi hauen arteko **elkarrekintzatik** sortzen da gizarteari helarazten zaion irudia ez ezik lanbidearen beraren zentzua ere. Profesionala, erabiltzaile/bezeroen komunitate baten zerbitzura lan egiten duenean eta erakunde handiago batean sartzen denean, existitzen da praktikan. Lagungarri da, honela, erakunde horretako helburuak hobetzen nahiz bertako zereginak eta helburuak betetzen ere.

Gehiago aintzat har gaitzaten eta gure presentzia handi dadin hartu behar dugu helburu. Lehendabiziko urratsa gu erabiltzeko beharra sortzea izango da, eta hori lortzeko gakoa, aipaturiko esparru bakoitzean, benetan interesgarria den zerbaiten ekarpena egitean datza. Mugimenduan egon behar dugu etengabe. Gure merkatuaren (bezeroa/erakundea) eta honen testuinguruaren (gizartearen) bilakaera aztertzeko eta arakatzeko lanean aritu behar dugu buru-belarri une oro. Ingurunea ezagutzeak aukera emango digu informazioaren beharretara egokitzeko eta gure lanbidearen garapenerako sortzen doazen aukerak hautematen joateko.

Alderdi hauen elkarrekintza garatzen den ingurua gero eta teknologikoagoa eta birtualagoa da; tradizioan zehar informazio-harremanaren euskarri izan den inguru fisiko, aurrez aurreko eta analogikoaren kaltetan.

Ez dugu errepikatuko teknologia berriak bat-batean sartze honek zenbateraino aldatu dituen gure bizitza eta lanbidea, guztiok baitugu horren berri. Ukaezina den errealitate hori abiapuntu hartuz, gure mesedetan erabili behar dugu: orain, teknologiaren eskutik, informazio-zentroa hurbil diezaiokegu erabiltzaileari, bere

lantokira, bulegora, etxera eraman diezaiokegu, erabiltzailea bera gure mahaira noiz hurbilduko zain egon beharrik izan gabe.

Ez dezagun ahaztu, gainera, arazo nagusia jada ez dela informazioa aurkitzea, gehiegizko informazioa bera baizik, hau da, kalitatezko iragazkirik, ebaluatzeko irizpiderik eta baremorik ez izatea, gure bilaketan edota eskatzen zaizkigun informazioetan lortutako emaitzetan egokienak zein diren erabaki ahal izateko.

Gure lanean, ez dugu bitartekari soilak izan behar, tutoretza- eta aholkularitzan pertsonalizatua ere egin behar dugu, informazioaren eta ezagutzaren unibertsoari lorturik.

Gure zeregina kalitatea, ziurtasuna, ebaluatutako emaitzak, azkartasuna eta azken dokumentua eskuratzeko bitartekoak eskaintzean datza. Erabiltzaileak hezi behar ditugu, informazioa erabiltzen eta interpretatzen erakutsi behar diegu, bai formatu tradizionalan eta bai formaturik modernoan ere (**alfabetatze informazionala eta digitala**). Erakutsi egin behar diegu, halaber, informazioa ebaluatzen eta iragazten ez ezik beren eskaera maila handitzen ere.

Baina profesionalaren zeregin berria haratago heltzen da, ez baita **INFORMAZIOA**, bere horretan, erabiltzaile edo bezeroak zein komunitatea bera arduratzen dituen. Euren arazoentzako erantzunak eta irtenbideak dira beraien kezka. Mota honetako galdera bati erantzutean legoke gakoa, besterik gabe:

*Nola konpon dezake nire arazoa eman didazun edo lortzen erakutsi didazun informazioak?*

Horretan dago gakoa. Lanbidearen egiazko balioa ez da informazioan bertan bilatu behar, guk informazio horrekin egin dezakegun edo egiten dakigun horretan baizik, arazoak konpontzeko lagungarri izan dadin. Honela, profesionala alderdi erabakigarri bilakatzen da hiritarren garapen pertsonala eta profesionala errazteko, baita erakundeetako "erabaki-hartzeetarako" ere.

Gizartean lortuko dugun aitorpen eta eragin maila guk gizarte horretara eginiko ekarpenen eta hauen bilakaeraren araberakoa izango da.

Zentzu honetan aurrera egiteak berekin du **bigarren mailako informazioaren ekoizpenean** ere zeregin bat gure gain hartzea. Teknologiaz

baliatuz, honela, informazio hori azken erabiltzaileari modu pertsonalizatuan eskaintzeko.

Informazioaren esparruan dugun esperientzia abiapuntu hartuz, honen zentzurik zabalenean (edukiak, ezagutza sortzea eta antolatzea), modu eragingarrian kudeatu behar ditugu gure erakundeetako edukiak, hautemangarri, ageriko eta ebaluagarri bilakatu behar dugu hautemangarri ez dena (informazioa, jakintza). Aholkulari-lana egitera iristeko prestaturik egon behar dugu.

Gure lanbidearen esparruan, kolektiboaren **ekintzak bateratzen** saiatuko gara, guztion asmo eta helburuak elkartuz eta komunikatzeko bideak ezarriz. Ezinbestekoa izango da indarra duen ordezkari bat izatea Euskadin, hau da, gure aurkezpen- eta ordezkari-eskutitz ez ezik gure ingurunean eragiteko ekintza-bitarteko ere izango dena.

#### **4. LANBIDE BERRIAREN EZAUGARRIAK**

##### **4.1. Izendapena**

Gure lanbidea gizartean gehiago ikusaraz dadin, beharrezkoa da informazioaren eremuko profesionalaren terminoa hartu eta erabiltzen joatea. Termino hau gailentzen hasia da Europan, eta lanbidearen unitatea sendotzen du, baita kolektiboaren kontzientzia laguntzen ere, guztiok kontuan hartzen gaituen termino bakar baten bidez. Azken batean, guztiok gara **informazioaren eta dokumentazioaren eremuko profesionalak**.

Kontua ez datza izenez aldatu eta gure izendapena ordezkatzean. Ahalegin honek, izan ere, ez luke nahasmena eta porrota besterik eragingo, pertsona orok baitu, gure kulturaren, artxibozain edo liburuzain bat denaren inguruko halako nozioen bat (nahiz eta lanbidea behar bezain ongi definitzen asmatu ez). Asmoa, aitzitik, termino moderno eta ezagun bat erabiliz gure lanbideen edukia sendotzean eta azaltzean datza, betiere testuinguruak horretarako aukera ematen duenean. Termino hori **informazioaren eremuko profesionalarena** izango litzateke.

## **4.2. Profesional berriaren gaitasunak**

### 4.2.1. Euroreferencial en información y documentación (2004)<sup>(3)</sup>

ECIAk (Informazioaren eremuko elkarte profesionalen kontseilu europarrak) DECIDoc proiektuaren esparruan gauzatutako eurogaitasunei buruzko txostenaren gaztelaniazko bertsioa, 2004. urtean SEDICEk argitaratutakoa.

Volumen 1. Competencias y aptitudes de los profesionales europeos de información y documentación <sup>(4)</sup>

Volumen 2. Niveles de cualificación de los profesionales europeos de información y documentación <sup>(5)</sup>

### 4.2.2. Euroreferencial en Información y Documentación. 2. argit. guztiz berrikusia<sup>(6)</sup>

Espezializatutako liburutegien elkarteak-Special Libraries Association-(SLA) delakoak egina (Dinamikoak eta aldetara bideratuak diren IPen erakundea, beraiek definitzen duten bezala). Dokumentu hau interesgarria da; batetik, praktika onak zein diren adierazteko baliagarri izan daitekeelako (IP berriaren jarrerak, ikuspegia eta abar), eta bestetik, garatu behar ditugun gaitasun-moten, eta hortaz, Prestakuntza Planaren, inguruko orientabidea eman dezakeelako.

### 4.2.3. Competencias del bibliotecario digital (Rebiun 2003)<sup>(7)</sup>

Dokumentu soil honetan, kasu jakin bati egokitu zaizkio zerrendako eurogaitasunak. [05-9-13 kontsulta]

### 4.2.4. Jose Luis del Río Sadornil-ek "dokumentalista" berriaren profilari buruzko ideiak ematen ditu ondoko liburuan: El documentalista en la sociedad de la información<sup>(8)</sup>

## **4.3. Lanbide-kategoriak**

Lanbide-kategorien eta hauen zereginen definizioa ez ezik hauei atxiki ohi zaizkien ordainsari mailak ere garrantzia handiko alderdiak dira, eta informazioaren esparruko profesionalek egiten duten lanaren kalitatea baldintzatzen hel daitezke.

Egia da mailen arteko desorekak (zereginen eta lanaren inguruko kategoriak, ordainsarien balorazioa eta mailak) zuzeneko eragina duela zereginak

betetzerakoan. Era berean, informazioaren esparruko unitateetako langileen lanpostu eta kategoriak desegoki antolatzeak ere eragina du eskaintzen den zerbitzuan.

Hausnarketa batzuk azaldu nahi genituzke hainbat ideia orientagarri eskaintzeko asmoz, aintzat harturiko alderdien eta ordainsarien atala gauzatzeko baliagarri izan daitezzen.

Lehenik eta behin, bateratu beharrekoak diren bi alderdi ditu lanbidearen jardunak:

- **Lanaren alderdia.** Beharrezkoa da erakunde batean sarturik egotea eta erabiltzaile-komunitate bat edukitzea, zerbitzuak harengana bideratzeko. Alderdi honetan zehaztu beharko dira ordainsariaren mailak.

Lan-inguruneak zehazten du jardun-mota, eta hortaz, baita eskatzen den profila ere. Ez da gauza bera funtzio publikoan jardutea, hots, hiritarren zerbitzura lan egitean oinarritua funtsean, edota sektore pribatuan aritzea. Azken honek zerikusi handiagoa du emaitzekin eta zerbitzatzen duen erakundearekin.

- **Lanbidearen alderdia.** Lanaren alderdiarekiko independentea da, horretaz oharturik egon behar da. Gainera, lan egiten den erakundeaz haratagoko balio batzuez baliatzen da. Testuinguru honetan zehaztu behar dira lanbide-gaitasunak.

Lanbidearen ikuspegitik, hainbat sailkapen generiko dago, eta baliozkoak izanagatik ere, ezin aplika daitezke kasu guztietan. Dena den, oro har hartuta, esan daitekeena da gutxienez bi maila bereiz daitezkeela informazio-unitateetan. Bata, zeregin kodifikagarrietan aritzen dena eta, bestea, maila altuagokoa, zerbitzuak kudeatzen eta diseinatzen ez ezik marketing-lanetan ere aritzen dena. Sistema honek bermatu egingo lieke egiaz profesionali berez dagozkien zereginak bete ahal izatea.

Ezin ahantz dezakegu, azkenik, lanbide hau, bere osotasunean hartuta, bi sektorek osatzen dutela. Akademikoa da bata, eta praktikoa bestea. Lehendabizikoa esparru teorikoan mugitzen da, ekarpen bibliografikoak egiten ditu

eta "doktrina" sortzen du. Bigarrena, berriz, esparru praktikoan mugitzen da, eta zerbitzatzen duen kolektiboaren informazio-beharrei erantzuten die.

Bi alderdi hauek elkarren osagarri dira, eta "lanbidea osatzen" dute. Biak hartu behar dira kontuan lan-kategoriak ezartzerakoan eta kategoria horiek gauzatzeko moduak definitzerakoan. Mailarik altuena bien artean dabilena da, hau da, lanbidearen jardun praktikoa abiapuntu hartuz ekarpen eta planteamendu teorikoak egiteko gai dena (praktiko hausnartzailea).

Bi sailkapen-mota proposatu ditugu baloratzeko:

#### **4.3.1. Euroerreferentzialean ezarritakoa**

##### 1. maila. Informazioaren eta dokumentazioaren eremuko langile laguntzailea

Lanbidearen arauen gaineko oinarrizko ezagutzaren jabe da (metodoak, arauak eta abar). Badaki, behinik behin, araurik badela, eta gai da horiek izendatzeko. Prestakuntza berezia jaso duenez, zeregin jakin bat edo gehiago gauzatzeko gai da, zeregin horiei modu fidagarrian aplikatuz ikasitako arauak.

##### 2. maila. Informazioaren eta dokumentazioaren eremuko teknikaria

Ongi ezagutzen ditu lanbidearen arauak (metodoak, arauak eta abar), baita arau horiek bideratzen dituzten printzipioak ere, eta behar denean horiek aplikatzeko gai da. Arau horiek interpretatzeko eta egoera jakinetara egokitzeko gai da.

##### 3. maila. Informazioaren eta dokumentazioaren eremuko goi mailako teknikaria

Jaso duen prestakuntza teoriko eta praktikoak lanbidearen arauen gaineko ezagutza zabala eskaini dio (metodoak, araua eta abar), baita arau horiek bideratzen dituzten printzipioen ingurukoa ere; horien bilakaera eta berrikuntza lotzeko gaiturik dago.

##### 4. maila. Informazioaren eta dokumentazioaren eremuko aditua

Aurrekoaz gain, ezagutza eta esperientzia bereziki zabalaren jabe da espezialitate batean (edo espezialitate osagarriek osaturiko multzo batean). Horrek gaitasuna ematen dio egoera bateko alderdi guztiak ebaluatzeko, arazo berri

batentzako irtenbideak aurkitzeko, metodologia bat asmatzeko eta bere esparrukotzat jotzen diren kontzeptu teorikoak zalantzan jartzeko.

#### **4.3.2. Ortoll Espinet-ek<sup>(9)</sup> jasotakoa, eguneroko praktikan informazioa modu eragingarrian erabiltzeko gaitasuna kontuan hartuta.**

##### Oinarrizko maila

Pertsonak eguneroko egoeretan aplikatzen du gaitasuna, oso modu oinarrizkoan.

##### Profesionalaren maila

Gaitasuna, kasu honetan, halako teknikarekin erabiltzen da, gogoetari tarte handiagoa eskainiz. Eskaera jaso ahala gauzatzen da zeregina.

##### Adituaren maila

Gaitasuna oso egoera aldakor, ezohiko edo konplexuetan erabiltzen da. Zeregina beste zenbait esparrurekin eta zereginekin elkarrekintzan gauzatzen da, hauen helburuak kontuan hartuz.

##### Maila estrategikoa

Pertsonak modu sortzailean aplikatzen du gaitasuna, eta erreferentziazat hartzen da aplikazioaren testuinguruan. Lagungarri da zeregin jakinen garapenean helburu berriak ezartzeko.

#### **4.4. Jarrerak, trebetasunak eta ikaskuntza**

Banakako ikaskuntza etengabeak eta egunean mantentzeko kezkak bereizten du profesional berria.

Gure burua prestatzeko lanak etenik gabea izan behar du, eta puntako teknologia zein jakintza-korronte berrien hurrean ibili behar dugu beti (bakoitzak dagokion espezialitatean).

Jokabide aktibo eta eraginkorra izan beharko genuke. Diziplina tradizionalak (katalogazioa, informazio bibliografikoa eta abar) beste zenbait diziplina berrirekin elkartu behar dira. Sortzen ari garen eredu berri honetan, funtsezko egitekoa ari

dira hartzen banakako ikaskuntzak, eta egiteko horrek ikusteko handiagoa du jarrera pertsonalarekin bestelako alderdiekin baino.

Prestakuntza ez datza soilik lanbidearen inguruko ikastaro eta ekitaldietara joatean, ideiak eta esperientziak trukatzek ere ezagutza berriak sortzen baititu. Hortaz, eragile izan behar da, prestakuntza-hartzaile huts izan gabe, eta ingurune egokia sortu behar da, beste profesional eta pertsonekin (erakundekoekin zein beste edozein interes-taldekoekin) ezagutzak eta esperientziak partekatu ahal izateko, betiere askatasuna eta errespetua oinarri harturik.

Ikaskuntzarako oso beharrezkoa da erakunde baten laguntza edukitzea, erakunde horrek babesa eta topagunea, fisikoa zein birtuala, eskaini diezazkigun. Erreferente kolektibo eta soziala izango den elkarte profesionala behar da. Kultura korporatibo jakina ez ezik balio zein jokatzeko modu jakinak izango dituen. Honen funtsezko helburua erakundea barnetik lotzea, barneko giroa zehaztea eta lana egiteko jarraibideak adieraztea da, gatazkak konpontzeaz gain.

## **5. ERAKUNDE PROFESIONALAREN MARKETING SOZIALA: AITORPENA LORTZEKO TAKTIKAK**

Aitorpen handiagoa lortzeko helburuari begira, gure burua gizartearen begitara nabarmentzea litzateke lehendabiziko urratsa: gizarteak gure lana uler dezan eta gure beharra senti dezan. Gure gaitasunak finkatu behar ditugu, eta borroka egin behar dugu gure lanpostuak balora daitezen eta enplegu-eskaintzen deialdiak duinagoak izan daitezen.

Erabiltzaileari tresnak eskaini behar dizkiogu, informatikoak zein metodologikoak, informazio-iturriak behar bezala erabil ditzan. Honela, indar handiko aliantza lortuko dugu, hau da, betirakoa.

Erakundearekiko harremanari dagokionez, ezinbesteko elementu izatera iritsi behar dugu, eta erakundean sartu behar dugu, halako moldez non onura gehiago lortzeko funtsezko alderditzat hartuko gaituzten. Erabat onartu behar dira erakundearen helburu eta estrategiak, eta hobekuntza-proposamenak egin behar dira, pixkanaka-pixkanaka erabaki estrategikoetan eragiten joateko.

Gure erantzukizun profesionala kontuan hartuz jokatu beharko dugu beti, lortutako emaitzak ez ezik eguneroko praktika eta jokatzeko modua izango baitira sistemaren konfiantza irabazteko aukera emango digutenak. Agerian geldituko

litzateke, hala, informazioaren eta ezagutzaren inguruko kudeaketa egokia zein neurritan den lagungarri aipaturiko erakundearen arrakastarako<sup>(10)</sup>.

Beharrezkoa da planteamendu berriak gure banakako lanari aplikatzea, baita, ahal bada, informazio-unitateari berari ere, enpresak praktikotasuna ikus diezaion "saltzen dugun" horri: kudeaketa gardena, etengabeko ebaluazioa, barne-komunikaziorako bideak ezartzea eta taldeko lana.

Baina gure estrategiaren oinarria kolektiboaren ahultasunak gainditzea izango da, zalantzarik gabe. Lanbidearen gizarte-aitorpena ez baita banaka eginiko ahalegin bakanen bidez lortuko; informazioaren eta dokumentazioaren eremuko profesional guztiek elkarrekin eginiko lanaren ondorioz baizik. Horretan datza barnekoa, barneranzkoa eta gure kolektiboarengana berarengana bideratutakoa den marketinga garatzearen garantiza<sup>(11)</sup>.

### **5.1. Aliantza estrategikoak**

Taktika-mota hau abian jartzeak berekin du jarrera negoziatzaile eta malgua erabiltzea beste kolektiboekin aliantzak ezartzeko eta gure interesetarako estrategikoak izan daitezkeen sektore jakin batzuetan eragiteko:

- **Administrazioa** gure enplegu-emailea izan ohi da, baina baita gure oztoporik handiena ere. Gure lanak langile teknikarien edota zuzendaritzakoen erabaki-hartzeetan duen eragina frogatzean datza.
- **Hezkuntzaren sektorea**, irakasleekin, gure zerbitzua eskainiz eta gure beharra sortuz. Lankidetzeta eta aholkularitza.
- **Enpresaren sektorea**, gure lana eskainiz, lan ordaindua.
- **Informatikaren sektorea**, eguneroko lanean lankidetzarako eta zereginak banatzeko guneak bilatuz, gure lanbidean beraien eskutik gertatzen hasia den intrusismoa ekiditeko.

## **6. EKINTZA-PLANERAKO PROPOSAMENA: HELBURUAK ETA JARDUERA-ILDOAK**

Aurreko guztia ikusita, ezinbestekotzat jotzen dugu ekimenen bat abian jartzea, egungo egoera aldatzera bideratutako ekintza sorta baten bidez. Honela, gure lanbidearen garapenerako agertoki berri bati bide emateko, adierazi ditugun planteamenduak oinarri direla.

Asmo honekin, jarduteko esparru generiko bat proposatu du lan-taldeak, eta hori lortzeko sustatu beharrekoak iruditzen zaizkigun helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak zehaztu dira.

### **6.1. Helburuak**

1. Lanbidearen eredu berritua egokitzea eta zabaltzea.
2. Informazioaren eta dokumentazioaren eremuko profesionalak prestigio eta balorazio handiagoa lortzea gizartean.
3. Laneko baldintzak eta aitortpena hobetzea.

### **6.2. Jarduera-ildoak**

1. Lanbidearen irudia sustatzea marketingaren bidez: marketing soziala, eta aitortpena lortzeko taktikak garatzea.
2. Gure gizarte-ordezkaritzaren elementua indartzea eta sendotzea: erakundea.
3. Lanbide-eredu berria zabaltzea profesionalen artean.
4. Etengabeko prestakuntza-estrategia gauzatzea eta mantentzea.
5. Lanpostuak sortzea. Lanbidea enpresetan garatzea.
6. Jada sorturik dauden lanpostuen maila hobetzea.
7. Elkarriketa sustatzea administrazioarekin eta beste instituzio, erakunde eta entitateekin.

Helburuen eta jarduera-ildoak inguruko proposamen hau zirriborro izatera bideratutakoa da. Ondoren, zirriborro horretan ildo batzuk irudikatuz, benetako ekintza-plan osatuago bat egin ahal izateko. Baina, era berean, **profil profesionalari buruzko lan-taldea** aurkezteko ere balio du, hemen jasorik gelditu baita beronen filosofia eta asmoa.

## BIBLIOGRAFIA ETA OHARRAK

- (1) *Manifiesto de la UNESCO en favor de las Bibliotecas Públicas*
- (2) *Manifiesto UNESCO/IFLA sobre la Biblioteca Escolar*
- (3) CHACOBO, David. *Marketing Para Bibliotecas*. Interneten eragilgarria: <<http://www.chacobo.com/arxiu/000024.html>> [Kontsulta: 2005ko iralaren 13a]
- (4) *Sistema europeo de certificación de los profesionales de la información y documentación*. Interneten eragilgarria: <<http://www.certidoc.net/es1/todo.php>> [Kontsulta: 2005ko iralaren 13a]
- (5) *Eurorefencial en Información y Documentación. Volumen 1, Competencias y aptitudes de los profesionales europeos de información y documentación*. Interneten eragilgarria: <<http://www.certidoc.net/es/euref2-espanol.pdf>> [Kontsulta: 2005ko iralaren 13a]
- (6) *Eurorefencial en Información y Documentación. Volumen 2, Niveles de cualificación de los profesionales europeos de información y documentación*. Interneten eragilgarria: <<http://www.certidoc.net/es/euref2-espanol.pdf>> [Kontsulta: 2005ko iralaren 13a]
- (7) *Competencias para profesionales de la información del siglo XXI*. Interneten eragilgarria: <[http://www.sla.org/documents/competencias\\_espanol.doc](http://www.sla.org/documents/competencias_espanol.doc)> [Kontsulta: 2005ko iralaren 13a]
- (8) *Plan estratégico Rebiun. Línea 2. Definir las competencias del bibliotecario digital*. Interneten eragilgarria: <<http://bibliotecnica.upc.es/Rebiun/nova/InformesGrupoTrabajo/56.pdf>> [Kontsulta: 2005ko iralaren 13a]
- (9) RÍO SADORNIL, Jose Luis del. "El documentalista en la sociedad de la información". En: *Manual de ciencias de la documentación*. Madrid: Pirámide, 2002, pp. 237-270
- (10) Abell y Oxbrow, A. y Oxbrow, N. "Competencias profesionales y uso de la información en el lugar de trabajo". En: *El profesional de la información*, vol. 13, nº 5 (2004), pp. 338-345.
- (11) PÉREZ-MONTORO GUTIÉRREZ, M.: "Sistemas de gestión de contenidos en la gestión del conocimiento". En: *BiD: textos universitarios de Biblioteconomía i Documentació*, juny, núm. 14. Interneten eragilgarria: <[http://www2.ub.es/bid/Kontsulta\\_articulos.php?fichero=14monto2.htm](http://www2.ub.es/bid/Kontsulta_articulos.php?fichero=14monto2.htm)> [Kontsulta: 2005ko iralaren 13a]